

Larrañaga harategia Beasaingo odolkien txapelketan bigarren

TXINTXARRI

Argi dago Larrañaga harategian odolkiak egiten dakitela. Patxi Larrañaga, Ana Iparragirre eta hauen alaba Naroak, Beasainen burutu zen XXIV. Odolkien txapelketan bigarren postua eskuratu zuten eta Bizkaiko odolkien XIV. Txapelketa Mundialean, finalistak izan dira.

Azaroaren 8an Patxi, Ana eta Naroa Larrañaga harategian dituzten odolki goxoanek eraman zituzten Beasainera, epai mahaikoak liluratzeko. Epai mahai kideen artean ziren DVko kritikoa Peio García, Eva Argiñano, Igor Argiñano, Zerain sagardotegiko Adelita Aizpeolea eta Juanita Arana, Donostia sagardotegikoa, eta Goierri aldeko sukaldariak.

Epai-mahaikoek Ormaiztegi-ko Jesus Mari Debak egindako odolkia izan zuten gustukoena,

honek jantzi baitzuen urrezko txapela. Baina, lasarteoriarek ez zuten oso gaizki egin, bigarrenak izan ziren. Hirugarrena, Beasaingo Olano harategia izan zuen. Beasaingo Odolkien Kofradiak antolatzen du ekimen hau eta jakin arazi zuten, aurtengo lehiaketan espero baino jende gehiagok parte hartu zuen, guztira 17 izan ziren.

Bizkaiko txapelketa eta txistorra

Asteartean, Bilbon Odolki bizkaitarraren XIV Lehiaketa Mundiala ospatu zuten. Eta, hemen ere, Patxi Larrañaga harategiak finalistaren artean izan ziren. Txapelketa honetan 100 bat parte hartzaile izan ziren eta irabazlea Naia Barturen izan zen.

Azaroaren 23an Kursaal aretoan antolatu den Lomejor-delagastronomia.com X. Kongresuan txistorra onena dutela erakusteko aukera dute. •



Naroa, Patxi eta Ana Larrañaga harategian salgai dituzten odolkiekin.

Arg.:Txema Valles

Afrikara... lanera bideo-emanaldia

Erramun Salazar lasarteoriarra eta Tomas Imaz zubietarra Yabatalou-n, Malin, izan ziren iaizko abenduan, herritarren ur hornikuntza errazteko sistema baten instalazioa egiten. Proiektu horri buruzko bideo-emanaldi bat eskaini zuten ostiral iluntzean Zabaletan. Euriari aurre eginez, jende ugari bildu zen bi lagun hauek eginiko proiektuaren nondik norakoak ezagutzera. Abenduaren 3tik 18ra bitartean izan ziren biak Maliko Dogon Herrialdeko herritarra horretan. Ur-ponpa bat jarri zuten putzuan eta hodi bidez herriko bi zonatan ipini zituzten biltegi-tietara garraiatzen da ura. •



MUSIKA ■ 3

Santa Zeziliaren omenez Udal Musika Eskolaren emanaldia

ERREPORTAJEA ■ 5

Arantza Garciak kurtso amaierako proiektua Kanbodian egingo du

ERREPORTAJEA ■ 6

Asier Bastidaren Saharari buruzko argazkiak kulturetxean



ELEKTRIZITATEA
ARREGUI

Material elektrikoa Argiak
Etxetresna elektrikoak
TB/Hi-Fi
Instalazio elektrikoak

Kale Nagusia 39 • Tel.: 943 361080 • Tel./Faxa: 943 372521 • LASARTE-ORIA



ADURIZ DE LASARTE S.A

Loidi kalea 3 • Lasarte-Oria • Tel.: 943 361278

Musika eta umorea larunbatean

Kirol emaitzak

Futbola

| | |
|---|-----|
| Amaroz-Ostadar (II. Erregionala) | 0-3 |
| Lasarte-Oria taldea-Juventus de America (II. Erregionala) | 9-0 |
| Lazkao- Lasarte-Oria Taldea (I. Jubenila) | 6-0 |
| Ostadar- Amaroaz (I. Jubenila) | 4-0 |
| Touring-Ostadar (Kadeteen Ohorezko Maila) | 2-0 |
| Hernani-Ostadar (Emakumezkoen KDT FI I) | 0-0 |
| Ostadar-Touring (Infantilen Ohorezko Maila) | 4-4 |
| Touring-Ostadar (Infantil Txikiak) | 2-1 |
| Ostadar-Añorga (Emakumezkoen Liga) | 3-3 |

Futbol 8

| | |
|--|-----|
| Lasarte BHI-Zarautz (Infantilak) | 1-1 |
|--|-----|

Areto-Futbola

| | |
|---|-----|
| Kanikas Infracoman-Aldaz H.K. (Euskal Liga) | 4-5 |
| ISU Lehiok-Añoetako Gazte Asanblada (Gipuzkoako Liga) | 1-1 |

HERRIKO TXAPELKETA

| | |
|-------------------------------|------|
| Epel-Danena | 6-3 |
| Siglo 20-Izkiña | 2-7 |
| ISU-Ainhoa | 1-1 |
| Jordi-Ilargi | 6-1 |
| Buenetxea-Lurra XXI | 6-2 |
| Izarra-Morrison | 10-2 |
| Katanga-Oria Txiki | 1-2 |
| Oria krist.-Biyona | 2-4 |
| Okela-Mayi | 2-11 |
| Tragoxka-IOB H.K. | 2-3 |
| Viña del Mar.Obelix | 4-3 |



Exkerreko argazkian Jalgioko jam sesioan gonbidatu ziren Anna Valentina hirukotea eta eskuinean Kike Biguri umorista Naiban tabernan.

TXINTXARRI

Larunbat iluntzean aukera ezberdinak zeuden kulturaz gozatzeko. Alde batetik hilero Jalgi kafe-antzokian antolatzen den jam sesioaren barruan, Anna Valentina hirukotea izan zen gonbidatu berezia. Hirukote honek jazz-a eta swing-a

lantzen du, beste estilo batzuen artean.

Hirukoteak berak eman zion hasiera jam sesioari; ohol-tza gainean, eta hasteko, honako musikariak izan ziren: Anna Valentina (Ahotsa), Michel Bennet (Gitarra) eta Patxi Villanueva (Baxua). Hauekin, Josu Etxeberria (Ahotsa) eta Jokin



Telleria (Bateria). Giro polita sortu zen Jalgin, jende asko bildu zen musikaz gozatzeko asmoarekin.

Naibanen bakarrizketa

Kike Biguri izan zen Sasoteko Naiban tabernan bakarrizketa eder batekin. Jende asko bildu zen bakarrizketa zetu-

tera. Kikek erreposoa egin zion gaur egun puri-purian dauden zenbait gaiei. Algara ederrak sorrarazi eta txalo zaparrada ederra jaso zuen zorioreko futbol taldeen eta jokalarien erreposoa egin zuenean. Egunerokotasuneko gaiei ere heldu zien, batez ere bikoteen harremani. •


Hamabostero filme bat emango da Gazte bilgunearen lokalean

Gazte bilgunean zinea emango dute hamabost egunean behin. Ostegunetan izango da, gaueko 21:30etatik aurrera Kultur Etxean zine emanaldirik ez dagoenean eta antolatzaileek jakinarazi dutenez, Oken-do zinema taldearen filosofiari eutsiz filma interesgarriak ekartzen saiatuko dira. Kañoi bat erabiliz emango dituzte Gazte Bilguneak Iñigo de Loiola kalean duen lokalean.

Hurrengo ostegunean, azaroak 20, gaueko 21:30tan "Carandiru" pelikula proiektatuko da Gazte bilgunean. Saioa doan izango da. Esan bezala, bi ostegunetik behin izango da zinema Gazte Bilgunean, kultur etxean Oken-do Zinema Taldeak

pelikularik botatzen ez denean, hain zuzen.

Kartzelako gaia jorratzen du "Carandiru" filmeak. Sao Paulon dago eta Latinoamerikako espetxe handienaren izena da. Kartzela honetan, Hiesaren prebentzioan lan egiten duen doktore etorri berri batek, preso eta zailtasunaz gainezka den kartzelako egunerokotasunari aurre egiten dio. Gerora, presoak bere barua irekiko diote eta osasun arazoetaz aparte, beren bizitzak kontatzen hasiko dira. Dráuzio Varela doktorearen liburuan oinarritzen da Hector Babencok 2004an zuzendu zuen filma. Carandiru, 1992ko urriaren 2ko sarraskiarengatik egin zen zoritxarrez famatu. •



Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak



Lasarte-Oriako Udala
Euskarako Batzordea



EUSKO JAURLARITZA
KULTURA SAILA

Argitaratzailea: Ttakun Kultur Elkarte, Geltoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria, 943 366858, G-20407557 • Legezko gordailua: SS513/93 • ISSN: 1134-0053 • Inprimategia: Zeroa Multimedia, S.A. Aleak zenbakiko: 7.300 • Erredakzioa: txintxarri@ttakun.com • Publizitatea: publizitatea@ttakun.com • Administrazioa eta banaketa: administrazioa@ttakun.com; ttakun@ttakun.com.

Txintxarrik ez du bere gain hartzen iritzi-artikulueta eta irakurleek bidalitako gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Miren Artetxe hirugarren I. Bertsulari Xapelketan

■ Txapelketa Amets Arzallusek irabazi du eta bigarren Sustrai Colina

TXINTXARRI

Aurreko astean Mireni elkarriketa egin genion, ea zer moduz ikusten zuen bere burua Ipar Euskal Herriko Bertsu Xapelketarekiko eta erantzuna "nahiko herdoilduta" izan zen. Anbizioren gabe joan zen eta "saio ona eginez gero, gustura. Kaka handirik ez egitea espero" esan zigun. Hirugarren postua eskuratu du, oso gustura geratzeko modukoa.

Larunbatean, arratsaldeko 5etan ospatu zen Donibane Lohitzuneko Jai Alai pilotalekuan Iparraldeko lehendabiziko finala, *I. Bertsulari Xapelketa*.

Bertan Miren Artetxek, beste zazpi gazterekin batera kantatu zuen eta hirugarren postua eskuratu zuen 538 punturekin.

Amets Arzallusek irabazi



Irudian, Miren Artetxe, GR5 txapelketako saio batean Jalgi kafe-antzekian, Oiartzunen kontra.

zuen xapelketa 568 punturekin eta bigarrena Sustrai Colina izan zen 544,5 punturekin. Miren Urdiñarbeko kanpora-

ketan baino maila hobea eman zuen. Saio orekatua egin zuen, apaltasunez. Emaizta honi esker, Euskal

Herriko txapelketan parte hartzeko aukera izango du.

Ea finalean ikusten zaitugun Miren. Zorionak. •

Santa Zeziliaren omenez kontzertua Musika Eskolakoek

Berrikuntza bezala, 18:00etan ikasleak kalejiran aterako dira kalea girotuz

Azaroaren 22an, larunbata, Santa Zeziliaren eguna da, musikarien zaindaria.

Egun seinatu hori ospatzeko asmoarekin, Lasarte-Oriako Musika Eskolako ikasleek 2008-2009 kurtsoko lehenengo kontzertua eskainiko dute. Emanaldia azaroaren 20ean osteguna, arratsaldeko 19:00etan, Manuel Lekuona kulturetxeko auditorioan izango da.

Musikalean ekimena

Aurten emanaldi berezi bat prestatu nahi izan dute eta berrikuntza bezala, ikasleak 18:00etan kalejira alaian aterako dira herriko kaleak girotuz nahian.

Musika Eskolatik helarazi digutenez, Euskal Herriko Musika Eskolen Elkarteari esker martxan jarri den *Musikalean* ekimenaren barruan kokatu dezakegu azken ekin-tza hau.

Musikalean herri edo hiri bakoitzeko kaleetan ekintza



Argazkian, zeharkako flautako ikasleen laukotea iazko Santa Zeziliaren omenezko emanaldian.

musikalak egitean datza. Era honetara, musika kalera atera eta festa giroa herrietan zabal-tzeko asmoa dute.

Lasarte-Oriako Musika eskolako kideez gain, ostegunean lehenengo aldiz egi-ten den ekimenean EHME

elkartea osatzen duten 37 eskolak eta 1700 ikasle eta irakasle parte hartuko dute-lakin arazi dute. •

AGENDA 21

Hondakinen gestioa herritarren foroan

TXINTXARRIn iragarri genuen bezala, Tokiko Agenda 21eko herritarren foroak hurrengo bilera azaroaren 19an izango da, 19:00etan, Villa Mirentxun.

Zita honetan hondakinen gestioa monografikoki jorratuko da, garrantzi handiko eta gaur-kotasuneko gaia baita. Izan ere, Zubietako erraustegia eta atez ateko bilketa sistema ezartzeko proiektua aztertuko baitira.

Horregatik Udalak parte hartzea deitzen die bai lasarte-oriarrei, eta baita jasangarritasun gaietan interesa duten elkarte eta taldeei ere. •

ELIKAGAIK MANIPULATZEA

Elikagai manipulatuak ikastaroa

Elkolab, S.Coop. enpresak arrisku gehieneko elikagai manipulatuak txartela eskuratzeko ikastaroa emango du Lasarte-Oriako Udalarren laguntzarekin. Azaroaren 27 eta 28an izango da, 16:30etik 19:30etara EPAK Zumaburun duen egoitzan. Ziertagiriak eskuratzeko interesa duen guztiak Elkolab enpresarekin harremanetan jarri daiteke 943 533 303 telefono zenbakian. •

KIROLA

Judokak lehiaketaz lehiaketa

LOKEko judoka gazteak, infantil mailakoek, Hondarribiko Ama Guadalupe Nazioarteko txapelketan parte hartu zuten azaroaren 8 eta 9an.

Bertan, Abayuba Gutierrez eta Josu Olmosek brontzeko domina lortu zuten, 5 borroka eta gero. Gorka Aristegi entrenatzaileak jakin arazi digunez, "denak oso ondo aritu ziren eta bi domina lortu genituen. Kiara Tobajak 4 borroka egin zituen eta oso maila polita erakutsi zuen. Iñigo Matxain, Imanol Gonzalez eta Unai Giraldo gogokekin aritu ziren hirurak".

Bestalde benjaminen azaroaren 9an, igandean, topaketa batean parte hartu zuten. •

KIROLA

Helduen igeriketa hastapen ikastaroa

Udal Kiroldegian helduentzako hastapeneko ikastaroa antolatuko da azaroaren 21tik abenduaren 16ra bitartean. Asteazkenetan, astelehenean, asteazkenean eta ostirala eta bi txandatan, 7:10ean eta 20:30ean, eskainiko den ikastaroa da.

Izena emateko interesa dutenek Kiroldegiko bulegoetan egin dezakete. Izen-emate epea azaroaren 21ean amaitzen da. •



Ostegunero goizeko 9.30etatik 11.30etara jasoko dira arropa eta bestelako osagarriak, Erribera kalean Ttakunek duen lokalean. Jantziak emateko prest daudenek bertara eraman beharko dituzte.

“Jantzitegi” zerbitzua martxan

■ Jantzi biltegia Ttakun eta Antzerki Eskolak sortu dute. ■ Deia zabaldu dute erabiltzen ez diren arropa zaharrak emateko. ■ Katalogatu eta gorde egingo dira behar dituztenei uzteko.

Ttakun Kultur Elkarteak eta Landaberi Antzerki eskolak jantzi biltegi bat sortuko dute antzerki, parodia, inauteri edo txokoetan mozorrotzeko behar dituztenei eskaintzeko. Bultzatzaileek, hasteko, herritarrei deia luzatu die etxean gordeta dituzten

arropa zaharrak eta erabiltzen ez dituztenak eman ditzaten. Bildutako guztiaren zerrenda egingo da eta hilabete batzuk barru zerbitzu hori eskaintzeko moduan izango dira, hau da, jantzi horiek behar dituztenei fidantza baten truke utziko zaizkie.

Jon ALTUNA

Denetarik jasoko da Ttakun eta Landaberi Antzerki Eskolak sortuko duten jantzi biltegiaren, era guztietako arropak eta baita oro har, oinetako, boltsa, zapi, betaurreko, mozorro edo antzerki emaldi, parodia, inauteri eta bestelako festatarako baliagarri izan daitekeen edozer.

Ttakun Kultur Elkarteak eta Landaberi Antzerki Eskolak elkarlanean bultzatutako ekimena izan da, hain zuzen ere, bien behar batetik sortua. Antzerki lanetarako, Santa Ana eguneko parodiarako, euskararen maratoirako, Ttakuneko haurren eta gazteen Txokoetako festetarako, eta oro har, mozorrotzea eskatzen

duen edozein ekitalditan erabiltzeko beti izan da jantzi eta bestelako osagarrien beharra. Horri aurre egiteko egin dute bi taldeek deialdia.

Denetarik arropak

Beraz, antzerkirako baliagarri izan daitezkeen gauzak etxean sobera dauzkateni eskatzen zaie, bota beharrean Ttakuneko biltegiara eramateko. Han oso pozik jasoko dituzte, eta erabili nahi dituenari utzi ere bai.

Hasteko urrian burutu zen Euskararen VII. maratoian erabiltako arropak jaso dituzte biltegiaren eta gerora uzten diren guztiakin osatuko da "jantzitegia". Arropa guztiak katalogatuta egongo dira, gero eskaerei azkar, ahalik eta modu egokienean erantzuteko.

Biltegia momentuz, ostegunero goizeko 9:30etatik 11:30etara egongo da zabalik Erribera kalean Ttakun-ek duen lokal zaharrean. Arropa emateko prest daudenak ber-

tatik pasa beharko dira ostegunero goizean aipatutako orduan.

Eman edo utzi

Jantziak emateko bi modu izango dira. Behar ez dutenek eman dezakete eta behin eman eta gero, biltegiakoak izango dira betirako. Baina posible da biltegiaren uztea baina jabetza mantenduz. Hau da, arropa horiek jabea izango dute, baina biltegiak erabiltzeko aukera eskainiko du.

Jantziak fidantza baten truke utzi egingo dira eta baldintza batzuk jarriko zaizkie jantziok alokatzen dituztenei itzultze-momenturako. Arropak osorik, garbi eta txukun itzuliz gero, aurreratutako dirua berreskuratuko da.

Katalogatuak

Bildutako arropa eta osagarri guztien zerrenda egin eta katalogatu egingo dira, une oro zer dagoen eta zer ez jakin ahal izateko.

Biltegiaren sorrerak bi funtzio beteko ditu, baterik Ttakun eta Antzerki Eskolaren beharrei erantzutea eta beste jantziaren beharra duen edozein, herritar, elkarte, konpartsa edo talderi zerbitzu hori eskaintzea. •

Ttakun-ek eta Landaberi Antzerki eskolak jantzi biltegia sortuko dute edozein ekitaldi dela eta mozorroak behar dituztenei uzteko.

“Arotz tailerra Zuraren eskolako ikasleek praktikak egiteko erabiliko da”

Akitaniako ISA-BTP unibertsitatean ingeniari-tza ikasten ari da Arantza Garcia lasarteoriarra eta kurtso amaierako proiektua Kanbodian egingo du

Nerea EIZAGUIRRE

Arantza Garcia Angleten ikasten du Akitaniako Etxebizitza eta Herri-lanetako Goi Mailako Institutuan (ISA-BTP), hau Pau eta Adourreko herrialdeko Unibertsitatearen baitan dago eta ingeniari-tza eskola da.

"Arkitektura teknikoa egin nuen, Erasmus laguntza eman zidaten karrera amaierako proiektua egiteko eta bertan egin nuen, Angleten. Frantziar duten praktika egiteko modua gustatu zitzaidan. Espainia mailan ez dago ikasketak jarraitzeko ezer, gertuena iparraldekoa zen eta bertan geratu nintzen 4. eta 5. maila ikasteko", esan digu Arantzak.

Honetaz gain, zera atxikitzen du, "han aukera asko dago. Esan bezala, Herri-lanetako eta Etxebizitza arkitektura jarraitzeko aukera dago, praktika asko eginez gainera. Urtean zehar bost hilabete egiten ditugu praktiketan. Ni udaran Suitzian egon naiz, Toulousen ere egon nintzen eta mundu guztian egon dira beste ikasleak, hala nola, Nueva Yorken edo Irlandan. Bost urte eta bi praktikekin bukatzen dituzu ikasketak eta erantzukizuneko praktikak dira, hemengoekin alderatuta ez da gauza bera."

Arotz tailerra Kanbodian

Arantza eta bere 32 ikasle-deek *Laminak* elkarteak sortu dute karrera amaierako proiektua egiteko.

"*Laminak* ISA-BTPko IX. promozioiko ikasleek sortu dugu. Proiektua aurrera eramateko, gela taldeetan banatu da. Ni komunikazio arloan nago eta Hego Euskal Herriko harremanak eramaten ditut, beste taldeek finantzaketa, eraikuntzaren planoak etab egiten dituzte. Orain, baliabideak bilatu behar ditugu proiektua egia bilakatzeko," esan digu ikasleak.

Taldearen ideia Asia hego eta ekialdeko herrialde bati laguntza ematea zen eta azkenean Kanbodian arotz tailerra eraikitzea erabaki zuten. "Arotz tailer hau ikasleek praktikak egiteko erabiliko da eta beharrezkoak dituzten makinekin gainera", azaldu digu Arantzak.



Kompong Seutik gertu egingo da Zuraren eskola eta hau da arotz tailerrek izango duen itxura. Arg: Arantza Garcia

Honela tailerra l'École du bois, Zuraren eskola proiektuaren barruan dago kokatuta. Hau *Les Enfants du Sourire Khmer* elkartearen proiektuetako bat da eta zailtasunak dituzten haurren alde egiten dituzten ekimenetako bat da.

"Gure elkarte *Les Enfants du Sourire Khmer* elkartearen proiektura batu zen, orain teoria gela egiten ari dira eta ia bukatua dago. Quebecoko irakasle bat joan zen bertara eta hango herritarrek hezitzen ari da. Urte bete egon da eta ostean guk bidaiatuko dugu. Guk arotz praktikak egiteko eraikuntza eraikiko dugu. Egurra erabiltzeko eskola da", esan digu.

Eskola Kompong Seutik bi pausora eraikiko da eta honi esker bertako umezurtz eta haur behartsuei etorkizunerako hezkuntza eman ahalko zaie.

"Umezurtzegia dago bertan. Haurrak 14 urtera arte ikasten dute eta gero ez daukate beste baliabiderik. Bere mundura bueltatu behar dira. Beraz, ikasketak emango zaizkie eta aurrerago beste proiektu bat egingo da, txalupa bat izango da egurren trafikoa garatzeko," aipatu du lasarteoriarrak.

Arantzak esan bezala, proiektuaren gela teorikoa dagoeneko eraikia dago eta azaroan irekiko ditu bere ateak. Hurrengo txandan tai-

lerra eta barnetegia doaz. *Laminak arotz tailerra* eraikitzeke konpromezua hartu zuen eta 2009ko apirilatik maiatzara taldea Kompong Seura joango da tailerra eraikitzeko.

"Eskolak bultzatutako ekimena da, bere izenean goaz, baina gure proiektua da. Laguntzen digute noski eta irakasleak joango dira ebaluaketa egitera, baina guk lortu behar dugu guztia," esan digu Laminakeko kideak eta honetaz gain, "apirilean goaz, lau asterako. Momentuz gure baliabideekin eraikiko dugu, baina ziurrenik aurrerago bertakoei laguntza eskatuko beharko diegu."

Eraikuntza proiektu honetaz gain, Arantzak kultura trukea egiteko esperientzia paregabea izango dela onartu digu, "ostatutan egingo dugu lo eta otorduak umezurtz egongo ditugu, beraz hango mundua ikusiko dugu."

Finantzaketa lortu

Proiektuak 85.000 eurotako aurrekontua du eta esan bezala taldeak finantzaketa bilatu behar du. %50a eskola eraikitzeke izango da eta beste erdia gazteen bidaiarako eta arotz tailerrek tresnak eskuratzeko.

Oraingoz, 30.000 bat euro lortu dituzte. Arantzak azaldu dagoeneko eraikia dago eta azaroan irekiko ditu bere ateak. Hurrengo txandan tai-



Irudian, Arantza Garcia, *Laminak* elkarteko kidea.

arte teoria dugu eta urtariletik aurrera enpresetan gaude. Honela, enpresa hauek diru-laguntzak eman dituzte.

Honetaz gain, autofinantzaketa lortzeko ekintzak egin ditugu, ingeniari-tzako proiektuak egin, dendetan lan egin, etab. eta herritarren laguntzak ere izan ditugu. Eta diruaz gain, Frantziako enpre-

sa batek tailerretako makinak emango ditu."

Proiektuari buruz gehiago jakiteko edo laguntza emateko, associationlaminak.free.fr orrialdea sortu dute ikasleek. Arantzak esan digunez, oraingo informazioa frantsesez dago, baina aurki euskaraz eta gazteleraz ere egongo da. •

Saharako erresistentziaren irudiak

- Asier Bastidaren "Amets bat eraikitzen" erakusketa zabalik da hilaren 28ra arte Kultur Etxean
- Euskal Fondoak antolatu du "Ekialdeko Saharako giza eskubideen aldeko" urtea dela eta

TXINTXARRI

Asier Bastida argazkilariak hamar egunetan Saharako kanpamentuetan jasotako argazkiak bildu dira Kultur Etxean hilaren 28ra arte astelehenetik ostiralera arratsaldeko 18:00etatik 21:00etara ikusi daitekeen "Amets bat eraikitzen" erakusketan. Argazkilariak berak aitortu duenez, Saharako errefuxiatuen kanpamentuetan eguneroko bizitza nolakoa den jaso du irudietan, Saharako herriaren eguneroko erresistentzia omendu nahi izan du argazkien bidez.

2007ko otsailean egon zen Asier Bastida Gasteizko argazkilari Argeliako desertuan saharaiarrek dituzten errefuxiatuen kanpamentuetan. Hamar egunetan hainbat argazki egin zituen argazkilariak eta irudi horietako batzuekin erakusketa osatu du. Guztira, 31 argazki erakutsiko dira Manuel Lekuona Kultur Etxean, 20 zuri beltzean eta 11 koloretan. Irudietan, herri nomada hori bizirik dela, amets egiten duela eta helburu horretarantz abiatu dela erakusten da: Erakusketa-aren antolatzaileek adierazi dutenez saharar herriaren egoera salatzen da batetik, baina herri honen bizimodua, erresistentzia eta herritarrek eurak ere omentzen dira argazkien bidez, "eurak dira irudi haue-tako protagonistak".

2008a "Ekialdeko Saharako giza eskubideen babesaren aldeko nazioarteko urte" izendatu dutela eta, Euskal Fondoak burutu dituen iharduera eta egitarauaren barruan antolatu da erakusketa.

Asier Bastidaren lana

Asier Bastida argazkilari profesionala da, zenbait komunikabiderentzat egin du lan. 2007ko otsailean egon zen Saharako errefuxiatu-zelaietan. Bastida berak kontatu digunez, "emaztea egon zen aurrena kanpamentuetan eta berak esan zidan merezi duela hango egoera ezagutzeak. Hamar egunetan ia kanpamentu guztiak pasa nituen. Argazkien bidez saharaiarren erresistentziari omen egiten saiatu naiz, beti ere, beraien eguneroko bizitzaren ikuspegitik". Argazkilariak beraien egunerokoa bizitza isladatzen saiatu da, baina errukirik eragin gabe. "Ez dut nahi inork argazkiak ikusi eta



2007ko otsailean hamar egun pasa zituen Asier Bastida argazkilariak Tinduf-eko kanpamentuetan. Orduan ateratako 31 argazkirekin osatu du erakusketa.



Zuri beltzean edo koloretan, argazkiek, saharaiarren kanpamentuetako eguneroko bizitza erakusten dute.

"ze pena" esaterik nahi. Bizitza oso arrunta eta oso duina daukate. Borrokalariak dira, mundu guztiak bezalaxe bere gauzak dituzte. Ez dut Saharako egoera politikoa ekarri nahi izan, hori ezaguna da. Egunerokoa isladatu eta bizitza horren hausnarketa ekarri nahi izan dut.

Erakusketa-aren aurretik liburu bat ere argitaratu zuen argazkilariak Gasteizko Uda-

laren laguntzaz. "20 urte amets bat eraikiz" liburuan 56 argazki eta hogeit lagunentzako jaso ziren, besteak beste Kirmen Uribe, idazlearena, Mikel Urdangarín abeslariarena, edo Jose Angel Cuerda alkate ohiarena. Daira de la Guera saharaiarren herriaren eta Gasteizen arteko 20 urteko anaidetzea ospatzeko argitaratu zen liburua.

Argazki kamara digitala erabiltzen du Asier Bastidak, irudiak koloretan ala zuri beltzean jasoz. Bietatik dauzka erakusketa: "argazkilari klasikoak naizela uste dut. Zuri beltzak koloreak ez duen sakontasuna dauka. Bestalde, beste kasu batzutan desertuko kolorearen indarra eta edertasunaren aurrean ez du zentzua irudi zuri beltza erabiltzeak.

Denetariko argazkiak daude: paisajeak, erretratoak, eguneroko irudiak, ... saharaiarrek eguneroko bizi diren tokian. Argazkilariak argazkiak begiratzeko gonbidapena luzatu die lasarte oriarrei, "argazkietan dago nire lana, argazkiek sortu behar dute sortzekotan sentsazioaren bat".

Asier Bastidak ekonomia ikasi zuen, baina argazkilari-tza zuen gustuko eta ikasten ari zelarik hasi zen zaleztan. Gero eta argazki gehiago aterratzen zituen eta piskanaka argazkilaritzan hasi zen lanean. Hori zelako asetzen zuena. Hamabost urte daromatza argazkilari gisa, zenbait medioetan lan egin du eta orain fotokazetaritza erabat baztertu gabe, publizitaterako irudiak egiten ditu. "Gustuko dut argazki kazetaritza eta denbora dudanean nire lantxoak egiten ditut" esan digu.

Ez da bere lehenengo erakusketa. Egin zuen lehen lan sakona, Lisboa hiriri buruzkoa izan zen. Gero etorri zen Saharako eta orain Bulgariako etorkin familia bati buruzkoa ari da lanean. Han eta hemen familia honi argazkiak ateratzeko dihardu eta laster gauzatuko da egitasmoa. "Dena den ez naiz beti bidaiatzen ari den argazkilari horietakoa" esan digu. •

Egunero

Erakusketa

MONICA CAÑON URSOLA margolariaren margo minimalistak ikusgai. Jalgi kafe-antzekian, egun osoan.



Erakusketa

ASIER BASTIDA argazkilariaren *Amets bat eraikitzen* erakusketa. Euskal Fondon laguntzarekin. Kulturetxeko erakusketen aretoan 18:00etatik 21:00etara.

Asteazkena, 19


Hitzaldia

NOLA HELTZEN DIEGUN GATAZKAKO EGOEREI, hori izango da Rafael Ramos psikologoak eskainiko duen hitzaldiaren gaia. Manuel Lekuona kulturetxean, 18:00etan

Osteguna, 20

Hitzaldia

HELENA SAN PEDRO Jostailuak eta jolasak gaiari helduko dio KIUBek antolatutako OtiK 7ra urteko umeen gurasoentzako hitzaldi solasaldien barruan. Manuel Lekuona kulturetxean, 18:00etan.



Ipuin ederrak etxeko txikienentzat

KORUKO ZURUTUZA ipuin-kontalariak saio ederra eskainiko du etxeko txikientzat kulturetxeko haurren liburutegian. Urtero bezala, aurten ere Bea Egizabal eta Pello Añorga izan dira Korukorekin batera ipuin kontaketa saioak eskaintzen Manuel Lekuonako haurren liburutegian.

ASTEAZKENEAN 18:00ETAN
KULTURETXEKO HAURREN LIBURUTEGIAN
EUSKARAZ

Ostirala, 21

Antzerkia

EMAKUMEEN ZENTRO ZIBIKOKO antzerki taldeak *Retales de mujer* antzezlana ekainiko du. Sarrera 2 euro. Manuel Lekuona kulturetxean, 19:30ean. GAZTELANIAZ

Kontzertua

UDAL MUSIKA ESKOLAKO ikasleek kontzertua emango dute Santa Zezilia musikariaren zaindariari eskainita. Saioa kalean hasiko bada ere emanaldia kulturetxeko aretoan izango da 19:00etan.

Oharrak

Kamara digital bat galdu da Argazki kamara digital bat galdu zen Kroseko egunean. BENQ DC E720 markako kamara bat da. Aurkitu duenak mesedez deitu dezala 605 760 578 zenbakira. Sarituko da.

Katxalin Elkarteak loteria Bularreko eta Ginekologiako Minbiziagatik Eragindako Gipuzkoako Emakumeen Elkarteak, Katxalinek, gabonetako loteria bidali du Lasarte-Oriako Kontsumitzaileen Informaziorako Udal Bulegora. Zenbakia 07.731 da eta txartel bakoitzaren prezioa 3 eurotako da, 0,50 zentimoko dohaina Katxalin elkartearako izango da. Loteria hau erosteko interesa dutenek KIUBn egin dezakete. Ganbo kalean.

Eguberrietako loteria

Lasartearra elkarteak, bazkide eta lagunei jakinarazi nahi die, gabonetako loteria dagoeneko salgai dagoela. Erostekoa asmoa duenak elkartearen

egin dezake astelehenetik ostiralera 18:00aurrera bendearen 7a arte, hau barne.

Maratoian galdutakoak

Euskararen VII. Maratoiko asteburuan zenbait gauza azaldu ziren plazan eta Ttakunen daude, motxila bat, arropa... Norbaitek zerbait galdu bazuen asteburu horretan pasa dadila Ttakunek bulegotik (Geltoki kalea 4, 943 371448).

Bizikletako kaskua

Bizikletaz ibiltzeko haur kasko bat agertu da. Galdu duenak deitu dezala 943 366858.

Barrikotea Lasartearren

Elkarteko zuzendaritzak bazkide eta lagunei jakinarazi nahi die urtero antolatzen den barrikotea azaroaren 29an, larunbatean izango dela iluntzeko 20:30ean. Bertan parte hartu nahi duten guztiek elkartetik pasa behar dute

izena ematera. Horretarako azken eguna azaroaren 26 izango da.

Aerogazte

Astelehen eta asteazkenetan, 17:15ean, aerobikeko eskolak ematen dira 14 urtetik beharera neska-mutilentzat, Udal Kiroldegiko aretoan. Gazte-txoek gogoko duten jarduerak alai eta dibertigarria da aerobica. Erritmoaren eta musika-kadentzien bidez, giza-harremanak eta osasuna garatzen eta hobetzen dituzte. Begirale tituludun eta aditu batek koordinatu eta animatzen du, koreografia ugariekin, musika eguneratu eta dibertigarritz, eta asmo bakar honekin: ondo pasatzea, eta ahalegin handiegirik gabe, ariketa fisiko atsegina egitea

Aquarobic

Modalitatea fisiko berri honen eskolak Udal Kiroldegiko Igerilekuan ematen dira, astearte eta ostegunetan, 9:15etik

Larunbata, 22

Sari banaketa

LASARTE-ORIAKO LITERATUR LEHIAKETAKO sariak banatuko dira Manuel Lekuona kulturetxeko hitzaldi aretoan, 12:00etan.

Irudiekin munduan barrena

Diaporamen zikloa Jalgi kafe-antzekian asteazkenean iluntzeko 21:00etan



Asteazkena 19

ANDER AMONDARAINEK, Cabo Verderekin eginiko bidaia azalduko du Bidaietako Diaporamen zikloaren barruan. EUSKARAZ

Asteazkena 26

IRATI PEREZEK, Nepalera eginiko bidaia kontatuko du Bidaietako Diaporamen zikloaren barruan. EUSKARAZ

Asteazkena 3

HIBAI DIEZEK ETA LAGUNEK Txina, Tibet, Kyrgyztan eta Uzbekistanera eginiko bidaia kontatuko dute. EUSKARAZ

Eskutitzak

Honelako "euskal herritarrekin", nahiago "euzkotarra" izan

Nik onar dezaket gure selekzioaren izenaren aurrean egunotan izan den eztabaida sutsua. Izan ere, gure Herriaren (7 herrialdeen) izen historikoa *Euzkadi* bazen ere, bere esanahia deskafeinatu xamarra iritsi zaigu denboraren poderioz. Ezin uka dezakegu egun *Euskal Herria* gainezarri zaiola. Bada, hortaz, selekzioaren izenaren gaurkotzearen baitan eztabaidarako mamia.

Hori bai, ezin onar dezaket hainbat futbolarik ultimatum gisa komunikabide orotara bidalitako manifestua gure selekzioaren izena inposatuz, partiduen ospakizuna ere zalan-tzan jarriaz. Batetik, selekzioaren izena jartzea ez dagokielako jokalariei, herritarrei baizik, selekzioa ez delako jokalaria, Euskal Herriarena (edo Euzkadirena) baizik. Bestetik, errespetua zor diotelako 70 urteko bizitza duen selekzioari (Euzkadiko selekzioari); izan ere, egoera larrienak jasanda ere, exilioa jasanda ere, Euskal selekzioak inoiz ez duelako partidu bat bera ere bertan bera utzi, are gutxiago jokalarien aldarrikapen politikoa direla medio.

Gainera, kexuak kexu, jokalariek ez dute inolako barne gatazka ideologikorik, behin manifestua sinatu eta gero BMWa hartu eta Espainiar selekzioarekin jokatzera joateko (Llorente errioxar euskaldunduen kasu). Eta ez uste, nik onar dezaket euskal kirolari batek bere etorkizun profesionalari begira Espainiar selekzioarekin jokatzeko inolako eragozpenik ez jartzea. Baina hori kontutan izanda, ez diezaiotela inori euskaltasun lekziarik eman!!! Etxean otso, kalean usua.

Alde galanta dago BMWaren belaunaldiko *Euskal Herriko* eta 37an erbesteratutako *Euzkadiko* selekzioen artean.

Izan ere, honelako *euskal herritarrekin*, nahiago *euzkotarra* izaten jarraitu.

Jon Alkorta
Lasarte-Oria

Oharrak jartzeko:

Tel.: 943 366858
txintxarri@ttakun.com
Geltoki kalea 4, behe

Aspanovas elkartearen boluntarioa den Patricia Ruizekin egon gara hizketan. Beraien lana pixka bat gehiago ezagutzeko eta 10. urteurrenaren berri izateko nahiarekin. Gazte lasarteoriarra minbizia duten haur eta senitateko laguntzen aritzen da bizitza, pixkatxo bat bada ere, errazteko.

Patricia Ruiz / Aspanovas-Gipuzkoako boluntarioa

“Gaixotasunaren oztopoak gainditzen laguntzen dugu”

Urtero bezala gabonetako haurrentzako festa ospatuko dute laster eta horretarako jendeak soberan dituen jostailuak eta jolasak primeran etorriko zaizkie haurren artean banatu ahal izateko

Donostiako Ospitalera joaten dira Aspanovaseko boluntarioak gaixo dauden haurrekin egotera. Aspanovas Elkarteak minbizia dute haurren eta horien senitatekoen bizi kalitatea hobetzeko egiten du lan, "gaixotasunaren diagnostikoa eta garapenean sortzen diren oztopoak gainditzen", laguntzen dute.

Horrelako egoeratan gurasoek ardua handia dute eta deskantsatzeko denbora gutxi seme-alabekin eguneko zatirik gehiena pasatzen dutelako. Horregatik joaten dira boluntarioak ospitalera, haurrekin egotera senitatekoek beraien gauzak egiteko denbora izan dezaten "gure asmoa familia arteko bizitza eta bizitza soziala berreskuratzea da".

Laguntza eta lankidetzak

Horretaz gain, elkarteak sendatu diren haurrekin ere egiten du lan. Hamabostean behin gutxi gora-behera Txarako eraikinean biltzen dira tailerrak egiteko, margotzeko, mozorroak egiteko eta abar. Noizbehinka ere irteerak antolatzen dituzte, haurrei izugarri gustatzen zaielako lagun artean toki ezberdinak ezagutzera joatea. Egun pasa akuariumera edo Miarrizera joan dira dagoeneko eta aste-burua pasatzera Calafellera. Hala ere, aurren, pixka bat baztertuta utzi dute lan hau larunbatean ospatu zuten jaialdia antolatzeko.

Ekintza hauek egiten dituzten haurretako batzuk tratamenduarekin daude baina gehienak sendatuta dagoeneko. Hala ere, gaixo daudenek ezin dute horrelakorik egin, hori dela eta bilera bat egingo dute elkarteok ospitalean dauden haur horientzat ekintza gehiago prestatu nahi dituztelako. Orain ospitalera joaten dira beraiekin egotera baina zer-bait gehiago egiteko asmoa daukate. Ingresatuta daudenekin eta besterik ez frogatuz batzuk egitera doazenekin egoten dira, adibidez, analisi batzuk egiten dituen haurra emaitzen zain dagoen bitartean, Aspanovaseko boluntarioak beraiekin egoten dira zibergelan ordenagailuekin jolasean.



Patricia gustura aritzen da haurrekin ekintza desberdinak egiten azkenean giro polita eta lagunartekoa sortzen delako.

“*Etxerako zerbitzua ere egiten dugu, umeeekin egon eta horrela gurasoei tarte batez laguntzeko asmoarekin*”

Gainera haurrak ingresatuta dauden bitartean ahalik eta laguntza gehien ematen saiatzen da. Ospitaleko ohiko hain fama txarreko janaria ez jate arren kafetegiko jana ematen diete. Orokorrean haurren bizitza errazten saiatzen dira.

Zerbitzu gehiago

Patricia esan zigunez, etxe-

rako zerbitzua ere egiten dute "haur guztiak ez daude ospitalean, batzuk etxean daude eta hara ere joan gaitzeko beraiekin egon eta jolastera". Patriciaren ustetan jendea irrotza suerta dakioko ezegun bat etxean sartzea baina laguntza honekin gurasoak lasaia egon daitezke "tarte batez behintzat ardua hori kentzen diegu". Elkarteak jen-

dea laguntzeko prest dago, gehienek horrelako egoera bat nahiko gertutik bizi izan dute eta ezagutzen dute egoeraren gogortasuna.

Jaialdia

Elkartearen hamargarren urteurrena ospatzeko larunbatean Kurasaalen bildu ziren ekitaldi desberdinak antolatuta. Haurrentzat momentu bereziena Pirritx, Porrotx eta Mari Mototsen antzezpena izan zen. Haurrek asko disfrutatu zuten, batez ere ikuskizunetan parte hartzeagatik, beraiekin dantzatu baitzuten aktuzioan zehar. Hilabete hauetan egin duten lana ohol-tza gainean plazaratu zuten larunbatean haurrek eta arrakasta handiarekin gainera. Pailazoen minbiziaren gaia landu zuten, naturaltasunez eta era positibo batean.

Arratsaldean, beste batzuen artean, Zero Sette Akordeoi Orkestra eta Erketz Dantza Taldea izan ziren Kurasaalen. Lasarte-Oriak ordezkari onak izan izan zituen Aspanovasen 10. urtebetetzean, arto egoteko modukoak.

Eskerrak

Boluntario lanerako inoiz ez dago jendea soberan eta Aspanovasen ere zure laguntza pozik jasoko dute. Boluntarioen artean giro polita dago eta haurrekin oso ondo pasatzen dute jatorrak eta oso atseginak direlako.

Aspanovasek esaten duenaren arabera, minbizia duten haur asko tratamenduaz gain, euren adinerako ohikoak diren ekintzak egiten asko hobetzen dira. Ahal izanez gero eskolara joatea, familia eta lagunekin egotea eta abar onuragarria da haurrentzat eta elkarte horretan laguntzen saiatzen da.

Pirritx, Porrotx eta Mari Mototsi eskerrik beroenak bidali nahi dizkiete elkartetik lan handia egin dutelako laguntzeko. Ospitalera joaten dira eta dirua biltzerako orduan ere kolaboratzen dute. Aspanovasek mahaiak jartzen ditu pailazoen ikuskizunetan herriz herri doazenean materiala saldu eta dirua biltzeko baina gainera, haurrak lilurata daukate. •

Helena FERRERAS

Aspanovas elkarteak

ASPANOVAS-Gipuzkoa 1996. urtean eratu zen eta 1998an hasi zen lanean etxean minbizia duten haurrak zituzten 4 familiaren ekimen bidez. Geroztik hazten ari da elkarte bertan dauden familien ahalegina eta laguntza eskaintzen duten profesionalen lankidetzari esker.

Elkartearen helburuak:

- Minbizia duten haur eta senideen osasun, hezkuntza, arreta psikologikoa eta sozialaren hobekuntza lortzea.
- Gaixorik dauden haurren bizi-itxaropena handitzen laguntzea eta familiaren bizi kalitate maila duina lortzea.

tate maila duina lortzea.

- Gaixotasuna gainditu duten arduradunak eta solidarioak izan daitezen lan egitea.
- Beste elkarteekin lan egitea.
- Sortzen dituen arazoak gizartearen jakinaraztea.
- Egun hutsune asko dituen laguntza eta bakarkako tratamendu kliniko psikologikoko taldea sortzea.
- Hezkuntza garapena eta haur minbizidunek dituzten ikasketak prozesu atzerapenak gainditzeko laguntzak bultzatu.
- Boluntario sozial taldeen eraketa bultzatzea.